

I'TOITZ

DEBEKATUTA AHAZTEA

1996ko apirilaren 6an Itoitzekin Elkartasuna taldeko zortzi kidek urtegiko obren kableak moztu eta presaren eraikuntza hainbat hilabetez gerarazi zuten. 20 urteren ondoren zero gunera itzuli gara.




TESTUA ETA ARGAZKIAK:
Urko Apaolaza Avila
@urkoapaolaza

Ez zen lehen aldia ekintza zuzen baketsu bidez epaitegiak ilegal deklaraturako urtegiaren obrak eteten zituztela, ezta azkena izango ere –bi urte geroago 34 makina izorratu zituzten bi *solidariok*–; baina seguruenik presako hormigoia garraiatzeko kable handi horiek moztea izan zen garrantzitsu eta mediatikoena. Zortzi lagun kondenatu zituzten 4 urte eta hamar hilabeteko kartzelara eta horietako hiruk espetxean amaitu zuten: “Bitxia da, zaindaria lau minutuz atxiki-

tzeagatik kartzela gehiago izan genuen Segundo Marey bahitu eta torturatu zuten GALEkoek baino”, dio *solidario*etako batek Ahotsa.info hedabideak 20. urteurrenerako berariaz eginiko bideoan.

Itoizko urtegiaren kontrako borroka askoz lehenago hasi zen. 1985ean proiektua jakinarazi zutenetik Agoitz eta inguruko herrietan mobilizazioak eta oposizio jardunaldiak antolatu zituzten; Agoizko etxeetan orduko argazki zaharrak aurki daitezke han eta

Presarako errepidea moztuta dago luizi bat dela-eta. Urtegia betetzen hasi zirenetik zientoka lurrikara zenbatu dira inguruan.



hemen, herriko kaleak jendez lepo eta *Gure lurra defenda dezagun* zioten pankartzet josita.

Pixkanaka, Pirinioetako bazter horretako herritarren aldarria Euskal Herriko eta haragoko kontzientzia ekologistaren akuilu bilakatu zen, diruzalekeriaren eta zentzugabekeriaren kontrako sinbolo.

Hamarkadotako ibilbideak utzitako zauriak ugariak dira. Agoitzen, urtegiaren aldeko –izan bai baitzeuden– eta



aurkakoen arteko harremanak apurtuta, natur ondarea eta hainbaten bizitokia galdurik, herri bat zorrek eta krisiak itota, hondamendia izateko eguneroko beldurra...

Zero gunean asfaltoa eta beldarrak

Artzibarrera zihoan kamino zaharra moztuta dago Agoitz herria utzi eta kilometro gutxira. Gerra egoeran dagoen eremua dirudi: arriskuaz ohartarazten duten kartelak eta hesiak nonahi age-

ri dira. Urtegia betetzeko lehenengo probak 2004an hasi ziren eta geroztik zientoka lurrikara izan dira inguruan, batzuk ia 5 gradukoak Richter eskalan.

Badira hiru urte baino gehiago Ebroko Konfederazio Hidrografikoak pre-araino iristen den errepidea itxi zuela, ondoko mendi mazelan 4.000 metro kuboko luizia izan ondoren. Asfaltoa pinudietako beldar ilarentzako igaroleku baino ez da orain, administrazioak berriz zabaltzeko asmoa azaldu duen

arren, "turismoarentzako" interesa duelakoan.

Presaren nagusia Irati ibaiaren gainean dago, eta 135 metroko altuera eta 525 metroko zabalera du; haren gibelean bi ibar eta zazpi herri geratu dira urpean. Nafarroako urtegi handiena da Itoizkoa, 586 hektometro kubu ur biltzeko gaitasuna dauka.

Hastapeneko helburu ofiziala Nafarroako zonalde "lehorretako" nekazaritza guneak urez hornitzea zen, txorrotarako



Goian, Itoizko presa nagusia. Alde batetik bestera 800 metroko sei klabe zeuden eraikuntzarako hormigoia garraiatzeko. 1996ko apirilaren 6an goizeko 7:15ean 'solidarioek' kableak moztu zituzten rotaf exak erabiltza. Aurretik, zaindariari pistola kendu eta eskuak lotu zizkioten. Ekintza baketsua eta agerikoa izan zen arren –hainbat kazetari zeuden lekuko gisa– epaileak zigor gogorak ezarri zituen zaindaria “bahitu” zutela leporatuta. Beheko irudietan, obra amaigabeak Itoizko hormetako batean.

eta industriarako ere bai. Horretarako Nafarroako ubidea diseinatu zuten, 177 kilometroko azpiegitura.

Ubidearen lehen fasea egina dago – Itoizetik Pitillaseraino–, eta horren hedapena eraikitzen ari dira orain. Baina bistakoa da zor publikoa egiteko zuloa dela, batez ere gobernu aldaketarekin agerian geratu direnetik azpiegitura kudeatzen duen CANASA sozietatearen kontuak: diru-sarrerak eskas eta uste baino 100 milioi euro gehiago behar. Iruñerriko Mankomunitateak 48 aldiz garestiago ordaintzen du ubideko ura, Koldo Amezketak EH Bilduko parlamentariak berrikitan salatu duenez. Nekazaritzara emana dauden zenbait herritan –Lerin kasu– uko egin diote ubidea erabiltzeari eta ureztatze tradizionalaren hautua egin dute.

» Pixkana, Pirinioetako bazter horretako herritarren aldarria Euskal Herriko eta haragoko kontzientzia ekologistaren ikur bilakatu zen

Ablitasen amaituko litzatekeen ubidearen bigarren fasea oso zalantzan dago momentu honetan, UPNk Erriberako ur-hornidura oposizioa egiteko ikurtzat hartu duela ere. Sustrai Eraikuntza fundazioak ilegalitate ugari aurkitu dizkio eta Uraren Kultura Berria elkarteak duela hilabete argitaraturiko txosten batek argi utzi du Tuteraldean historikoki erabili diren ureztatze iturriak nahikoa eta soberan direla bertako nekazarien eskaria asetzeko, ez dela ubidearen beharrik alegia.

Uraren eta natur baliabideen pribatizazio klabeetan eta agro-industria kutsatzailearen mesedetan pentsatutako proiektua da honakoa. Agoitzen badute beste arrazoi bat Itoizko urtegia betiko husteko borrokarekin jarraitzeko, duela 20 urte bezala. ■